



ERANSKINA

2025. URTEKO ARAUGINTZA PLANAREN JARRAIPENAREN ETA BETETZE MAILAREN EBALUAZIOAREN MEMORIA.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedurari. 4. artikuluan xedatzen du, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Arabako Foru Aldundiak urteko araugintza plan bat onetsiko duela, eta, bertan, hurrengo urteko ekitaldian onesteko proposatu asmo dituen foru araugintzako ekimenak jasoko direla. 6. artikulua ezartzen du urte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen, Foru Gobernu Kontseiluak urteko txostena hartuko duela kontuan. Txosten hori arau garapeneraren arloan eskumena duen zuzendaritzak egingo du, eta 6/2023 Foru Dekretua aplikatuz onetsitako aurreko urteko Araugintza Planaren betetze maila jasoko du.

Azaldutako aginduen arabera, Foru Gobernu Kontseiluak, abenduaren 23ko 795/2024 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldiko Araugintza Plana onetsi zuen (2025eko AP). Aipatutako planaren betetze mailaren ebaluazioa egitea dagokio orain.

2025. urteko araugintza planaren gauzatzeari buruzko memoria hau Gobernantza Zuzendaritzako Arau Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuak egin du, inplikaturako sailen laguntzarekin, beren arau plangintzari buruz emandako informazioarekin.

Memorian zehazten dira, sail bakoitzeko, 2025eko APean sartutako arauak, eta zer izapidetze fasetan dauden, horri buruzko justifikazioa eta 2026ko Araugintza Planean ekitaldi horretan onetsi ez ziren 2025eko Urteko Araugintza Planean jasotako arauak sartzeko aurreikuspenari dagokion informazioa zehaztuz, hala badagokio. Halaber, 2025ean Urteko Araugintza Planean aurreikusita egon gabe onetsitako foru arauen proiektuak, foru dekretuak eta foru aginduak zerrendatzen dira.

Informazio horri dagokionez, argitu behar da organo eskudunaren ebazpenaren bidez prozedura irekita duten proiektuak bakarrik jotzen direla hasitzat, aurretiazko jarduketak gauzatu ahal izatea eragotzi gabe. 2025eko APean aurreikusi gabe izapidetutako arauak buruzko atalari dagokionez, organo eskudunak behin betiko onetsi behar dituenak baino ez dira sartzen.

Sailen ordenari eta eskuduntzei dagokienez, 2025eko AParen ebaluazioa Arabako Foru Aldundiaren egitura organikoari lotzen zaio. Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak, 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazteko dena, egitura organiko hori ezarri zuen. Ondoren, Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuak aldatu zuen.





ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundian hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak onesten dituena.	Bukatuta	Foru Gobernu kontseiluaren 3/2025 Foru Dekretua, otsailaren 4koa. Arabako Foru Aldundian hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei onespena ematen diona. 2025eko otsailaren 12ko ALHAO, 17. zenbakia.
	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Diputatuen Kontseiluaren 36/2017 Foru Dekretua, uztailaren 26koa, foru administrazioari funtzionarioen baldintzak onesten dituena.	Bukatuta	2025eko Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarria, zerbitzu aktiboan jarraitzeko luzapenari buruzkoa.
FORU AGINDUA	2024-2025 ikasturtean eta 2025eko udan euskara ikasi duten eta HAE Erekiko hitzarmenean sartuta ez dauden AFAko langileen matrikulak ordaintzeko 2024-2025 ikasturterako deialdia onesten duen Foru Agindua.	Bukatuta	406/2025 Foru Agindua, irailaren 5koa. IVA Pekiko hitzarmenaren babesetik kanpora 2024-2025 ikasturtean eta 2025eko udan euskara ikasten aritu diren AFAko funtzionarioei matrikulak ordaintzeko deialdiari onespena ematen diona.



ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	14/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 20koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Urtarrilaren 19ko 1/1999 Foru Dekretuaren aldatetari onespina ematen diona, zeinaren bidez onetsi baitzen Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorreko lanpostuak baloratzeko sistemaren eta ordainsarien araudia. 2025eko maiatzaren 30eko ALHAO, 60. zenbakia.	Bukatuta	“Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko lanpostuen antolamendu-egituraren azterketa eta birdiseinua” azterlanak jasotako gomendioak txertatuz joatea, bai antolaketa-egiturari dagokionez, bai lanpostuen egiturari dagokionez.
FORU AGINDUA	4/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 7koa. Arabako Foru Aldundiaren bulegoak irekitzeko ordutegiari eta horiek ixteko egunei 2025erako onespina ematen diena. 2025eko otsailaren 5eko ALHAO, 14. zenbakia.	Bukatuta	2025. urterako Arabako Foru Aldundiko bulegoen irekiera ordutegia eta itxiera egunak onestea.
	334/2025 Foru Agindua, uztailaren 15koa. Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 31/2021 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeari, Prozeduren eta Zerbitzuen Katalogoa sortzeari eta hura eta Izapideen Gida arautzeari onespina ematen diena. 2025eko uztailaren 23ko ALHAO, 83. Zenbakia	Bukatuta	Prozeduren eta Zerbitzuen Katalogoa, hura arautzea eta Izapideen Gida eguneratzearen beharra.
	237/2025 Foru Agindua, maiatzaren 27koa, maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Agindua aldatzeari eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudiari onespina ematen diena. 2025eko ekainaren 4ko ALHAO, 62. zenbakia.	Bukatuta	Araudia onetsi zenetik denbora asko igaro denez, aldatu egin behar da, bertan jasotako zenbait ezaugarri egokitzeko.



OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	2026. urterako zerga neurrien foru arau proiektua.	Bukatuta	21/2025 Foru Araua, abenduaren 19koa, 2026ko Zerga Neurriei buruzkoa. 2025eko abenduaren 29ko ALHAO, 147. zenbakia.
	Foru arau proiektua, 2026ko aurrekontua exekutatzekoa.	Bukatuta	20/2025 Foru Araua, abenduaren 16koa, 2026ko Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzekoa. 2025eko abenduaren 29ko ALHAO, 147. zenbakia.
	Foru arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoko 2024ko kontu orokorrari buruzkoa.	Egiteke	Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren fiskalizazioaren zain.
FORU DEKRETUA	Foru Dekretua, ondare elementuen eguneratze koefizienteak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan 2026ko ekitaldian egiten diren eskualdaketak arautzen dituena.	Bukatuta	41/2025 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. 2026ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteei onspena ematen diena. 2025eko abenduaren 26ko ALHAO, 146. zenbakia.
	Foru Dekretua, autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako arautzen dituena.	Bukatuta	5/2025 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena, autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioei, ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako onspena ematen diena. 2025eko martxoaren 5eko ALHAO, 26. zenbakia.

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA****Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak**

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Foru Dekretua, 2025eko lehentasunezko jarduerak onesten dituen, 35/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarrii buruzkoan ezarritakoaren arabera.	Bukatuta	39/2025 Foru Dekretua, azaroaren 18koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, interes orokorreko 2025erako xedeen eremuko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrendari, bat etorritik irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarrii buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak ezarritakoarekin onespina ematen diona. 2025 azaroaren 26ko ALHAO, 135. zenbakia.
	Foru Dekretua, 2025. urterako balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua arautzen duena.	Bukatuta	12/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 13koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztua arautzeari 2025erako onespina ematen diona. 2025eko maiatzaren 21eko ALHAO, 56. zenbakia.



OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	<p>1/2025 Foru Araua, urtarrilaren 15ekoa, 3/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 27koa, baliozkotzeko dena, zerga osagarri baten aplikazioa, talde multinazionalei eta talde nazional handiei gutxieneko zergapetze maila globala bermatzekoari onespina ematen diona.</p> <p>2025eko urtarrilaren 31ko ALHAO, 12. zenbakia.</p>	Bukatuta	<p>EB Kontseiluaren 2022/2523 Zuzentaraua, 2022ko abenduaren 15ekoa, enpresa multinazionalen taldeentzat eta Batasuneko talde nazional handientzat gutxieneko ezarpen maila globala bermatzeari buruzkoa, barne ordenamendu juridikora ekartzeko betebeharra betetzea.</p>
	<p>3/2025 Foru Araua, apirilaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemako zerga batzuei eta zergen arloko beste foru arau batzuk berrikusteari onespina ematen diona.</p> <p>2025eko apirilaren 16ko ALHAO, 44. zenbakia.</p>	Bukatuta	<p>Araudia ikuspuntu teknikotik eguneratzea, jurisprudentziaren azken erabakietara, legeria substantiboaren aldatetara eta administrazio irizpideetara egokituz. Arabako zerga sistemaren koherentzia eta kalitatea hobetzeko, eta zerga berrikuspeneko arau testu bat egiteko, gainerako euskal erakundeekin bateratuta.</p>
	<p>16/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, talde multinazionalentzat eta talde nazional handientzat gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko zerga osagarria ezartzen duena.</p> <p>2025eko abenduaren 22ko ALHAO, 145. zenbakia.</p>	Bukatuta	<p>Zerga osagarri berriaren erregulazioa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aipatutakoa (maiatzaren 23ko 12/2002 Legea), apirilaren 29ko 3/2025 Legeak aldatu zuena, Arabako Lurralde Historikoaren zerga ordenamendu juridikoan txertatzea.</p>
	<p>17/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, zenbait finantza entitatereen interesen eta komisioen marjinaren gaineko zerga onesten duena eta aldatzen dituena Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua.</p> <p>2025eko abenduaren 22ko ALHAO, 145. zenbakia.</p>	Bukatuta	<p>Zenbait finantza erakunderen interesen eta komisioen marjinaren gaineko zerga berriaren erregulazioa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aipatutakoa (maiatzaren 23ko 12/2002 Legea), apirilaren 29ko 3/2025 Legeak aldatua, Arabako Lurralde Historikoko zerga ordenamendu juridikoan txertatzea.</p> <p>Era berean, apirilaren 29ko 3/2025 Legean jasotako zenbait aldaketa puntual egin nahi dira, sozietateen gaineko zergaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregulazioan.</p>

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA****Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak**

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA	1/2025 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailea, ekainaren 17koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, urtarrilaren 19ko 12/1993 eta otsailaren 16ko 1/1999 foru dekretu arauemaileak aldatzeari onespena ematen diona. 2025eko ekainaren 25eko ALHAO, 71. zenbakia.	Bukatuta	Arabako zerga arauak balio erantsiaren gaineko zergaren eta zerga berezien arloko Estatuko araudira egokitzea, zehazki, abenduaren 20ko 7/2024 Legearen azken xedapenetako lehenengoan eta bigarreanean jasotako neurrietara.
	2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 23koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onspena ematea Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara egokitzeari, eta onspena ematea abenduaren 12ko 16/2025 Foru Araua aldatzeari. 2025eko abenduaren 29ko ALHAO, 147. zenbakia.	Bukatuta	Zerga arauak lege aldaketetara egokitzea.
FORU DEKRETUA	15/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 20koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuaren aldaketari, zeinaren bidez sortu baitzen foru administrazioaren Fakturen Kontabilitate Erregistroa eta onetsi bere tramitaziorako prozedura, onspena ematen diona. 2025eko maiatzaren 28ko ALHAO, 59. zenbakia.	Bukatuta	Egokia eta komenigarria da Foru Administrazioaren Fakturen Kontabilitate Erregistroari atxikitzeko aukera zabaltzea, Foru Merkataritzako Sozietatei eta Foru Fundazioei.



OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	42/2025 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Honako hauek aldatzeari onespina ematen diena: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onesten duen 40/2014 Foru Araua, sozietateen gaineko zergaren arautegia onesten duen abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Araua, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Araua eta otsailaren 27ko 3/2024 Foru Araua. 2025eko abenduaren 29ko ALHAO, 147. zenbakia.	Bukatuta	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak eguneratzeko eta aldatzeko beharrezkoa den araua.
	27/2025 Foru Dekretua, uztailaren 8koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. 2025eko aurrekontu ekitaldia ixteko eragiketei eta ekitaldi horretako hondarren ordainketak arautzeari onespina ematen diena. 2025eko uztailaren 16ko ALHAO, 80. zenbakia.	Bukatuta	2025eko ekitaldiko aurrekontu itxiera agintzeko beharrezkoa den erregulazioa.
	23/2025 Foru Dekretua, ekainaren 10ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak aldatzeari onespina ematen diona. 2025eko ekainaren 18ko ALHAO, 68. zenbakia.	Bukatuta	PFEZeko lan etekinei aplikatu beharreko atxikipen ehunekoaren taula berri bat onestearn egokitasuna.



OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU AGINDUA	Bigarren Diputatu Nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatuaren 363/2025 Foru Agindua, ekainaren 17koa. Zorrak ordaintzeko helbideratuz dirubilketan laguntzen ez duten Europar Batasuneko gordailu erakundeetan irekitako kontuetan, Eurotako Ordainketen Eremu Bakarraren (SEPA) barruan, bai eta ordaintzeko betebeharra duen pertsonaren titulartasunekoak ez diren gordailu erakunde laguntzaileetan irekitako kontuetan ere, eta zeinaren bidez ezartzen baitira ordainketa horiek egiteko prozedura eta baldintzei, baimena ematen diona. 2025eko ekainaren 25eko ALHAO, 71. zenbakia.	Bukatuta	Zorren ordainketa helbideratze bidez kasu jakin batzuetan arautzea, aurreikuspen arauemaileak garatzeko.



BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	Foru Arau Proiektua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.	Izapidetzen hasita	Zirriborroaren araudia eguneratzeko lanak jarraitzea. Egokitzat jo da kudeaketako zeharkako planteamendu berriak (kontratazioa, hitzarmenak, dirulaguntzak, genero-inpaktuei buruzko txostenak, etab.) sartzea arau-testuan, berdintasun-plana gauzatzetik eta genero-mainstreamingeko ekintzetatik datozenak. 2026ko Araugintza Planean sartua.
	Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoa arautzen duen foru arau proiektua.	Atzera eginda	Sailaren beste ekimen batzuei eman zaie lehentasuna.
FORU DEKRETUA	Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa sortu eta arautzen duena.	Aurretiazko jarduketak	Aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egin da. Hainbat administrazio unitatek osatutako lantalde bat eratu da eta talde horretan hartutako erabakien arabera dekretu zirriborro bat idatzi da. Aldi berean, lantaldearen ekarpenekin, Erregistroa kudeatzeko tresna izango den aplikazioa lantzen ari dira. 2026ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, ahalordetzeen erregistroa sortu eta arautzen duena.	Bukatuta	4/2026 Foru Dekretua, otsailaren 3koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Arabako Foru Aldundiko organoen titulartasuneko eskumenen Eskuordetzen Foru Erregistroa sortzeari eta arautzeari, eta haren antolamendu eta funtzionamendu arauak ezartzeari onespena ematen diona. 2026ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zenbakia.
	Foru Dekretua, herritarrek partaidetzarako eta lankidetzarako baliabideak antolatzeko prozedurak arautzen dituena.	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 204/2026 Erabakia, martxoaren 31koa, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu parte hartzaileak egiteko eredu parte hartzailearen gida praktikoa onartzen duena.



EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA			
Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	«Asfalto naturaleko meatze paisaiak eta Vasco-Navarro bide berdea» proiekturako Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzaz hitzarmena berresten duen Foru Arau Proiektua.	Bukatuta	<p>21/2023 Foru Araua, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako administrazio arteko hitzarmena berresteko, 'Asfalto naturalen meatze paisaien eta Vasco-Navarro bide berdearen HTJP' izeneko proiektua gauzatzeko, Europar Batasunaren Next Generation EU Funtsek finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2023ko abenduaren 22ko ALHAO, 48. zenbakia.</p> <p>258/2025 Erabakia, maiatzaren 13koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea "Asfalto Naturalen Meatze Paisaien eta Vasco-Navarro Bide Berdearen Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana (HTJP)" izeneko proiektua gauzatzeko Kontseiluaren abenduaren 26ko 897/2023 Erabakiaren bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekiko hitzarmenaren gehigarri bat sinatzea.</p>



GIZARTE POLITIKEN SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroaren egitura, antolaketa eta erregistro prozedura arautzen dituen 25/1999 Foru Dekretua indargabetzen duen Foru Dekretua.	Izapidetzen hasita	136/2025 Foru Agindua, abenduaren 26koa. Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen zuen otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretua indargabetzen duen foru dekretuaren proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona. 2026ko Araugintza Planean sartua.
	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailearen 22koa, mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen duena, bai eta, baldintza horiek betez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.	Bukatuta	20/2026 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea zenbait foru dekretu (uztailearen 22ko 36/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretua eta uztailearen 30eko 21/2024 Foru Dekretua) aldatzeari, urriaren 30eko 3/2024 Legera (alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituztenen bizi kalitatea hobetzeko) eta hura garatzeko araudira egokitze aldera. 2026ko maiatzaren 27ko ALHAO, 60. zenbakia.
	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Diputatuen Kontseiluaren 39/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, arautzen dituen mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalen laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.	Bukatuta	20/2026 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea zenbait foru dekretu aldatzeari (uztailearen 22ko 36/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretua eta uztailearen 30eko 21/2024 Foru Dekretua), urriaren 30eko 3/2024 Legera (alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituztenen bizi kalitatea hobetzeko) eta hura garatzeko araudira egokitze aldera. 2026ko maiatzaren 27ko ALHAO, 60. zenbakia.
	Foru dekretua, arreta goiztiarreko zerbitzua arautzen duena.	Bukatuta	21/2026 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Lurralde Historikoan arreta goiztiarreko zerbitzu publikoa emateko araudia 2026ko ekainaren 5eko ALHAO, 64. zenbakia



GIZARTE POLITIKEN SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Foru dekretua, Arabako Lurralde Historikoan bizimodu independentearen eredia arautzen duena.	Aurretiazko jarduketak	Arauaren testua aztertzeko eta defintzeko fasean. 2026ko Araugintza Planean sartua.
	Mantentze laguntzak arautzen dituen Foru Dekretua.	Aurretiazko jarduketak	Zirriborroa idatzita dago. Izapidetzea hasi aurretik berrikusteko zain. 2026ko Araugintza Planean sartua.
	Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Teknikoa sortu eta arautzen duen Foru Dekretua.	Bukatuta	7/2025 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Teknikoa sortu eta funtzionarazteari onespena ematen diona. 2025eko martxoaren 5eko ALHAO, 26. zenbakia.
	Adinekoentzako egoitza plazak hitzartzen dituen Foru Dekretua.	Atzera eginda	Foru Dekretuaren eduki nagusiak Lurralde Historikoei esleitutako garatzeko ahalmen arauemaitetik kanpo dago eta, beraz, ez da izapidetuko.
	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamendu araudi berria onesten duen Foru Dekretua.	Aurretiazko jarduketak	Arauaren testua aztertzeko eta defintzeko fasean. 2026ko Araugintza Planean sartua.
	Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 1eko 14/2011 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretua. Dekretu horrek Arabako Lurralde Historikoan esku hartze sozialeko etika batzordeak sortzeko eta akreditatzeko modua arautzen du.	Bukatuta	6/2025 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Kontseiluaren martxoaren 1eko 14/2011 Foru Dekretua aldatzeari onespena ematen diona. Haren bidez, Arabako Lurralde Historikoan Gizartegintzan etika batzordeak sortzeko eta akreditatzeko modua arautzen da. 2025eko martxoaren 5eko ALHAO, 26. zenbakia.
	Foru Dekretua, gizarte inklusiorako baliabideetarako sarbidea arautzen duena.	Aurretiazko jarduketak	Arauaren testua aztertzeko eta defintzeko fasean. 2026ko Araugintza Planean sartua.



GIZARTE POLITIKEN SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Honako foru dekretu aldatzen duen foru dekretua: Foru dekretua, aldatzen duena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2020 Foru Dekretua, irailaren 29koa.	Bukatuta	43/2025 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 31/2020 Foru Dekretua aldatzeari onespena ematen diona. 2025eko abenduaren 29ko ALHAO, 147. zenbakia
	Indarkeria matxistaren biktimentzako baliabideak arautzen dituen Foru Dekretua.	Aurretiazko jarduketak	Arauren testua aztertzeko eta definitzeko fasean. 2026ko Araugintza Planean sartua.
FORU AGINDUA	Laguntza txakurren trebakuntzan kaudimen aitortua duen erakunde espezializatuaren izaera lortzeko betekizunak arautzen dituen Foru Agindua.	Izapidetzen hasita	Entzunaldi eta informazio publikoko fasean. 128/2025 Foru Agindua, abenduaren 5koa. Laguntza txakurren trebakuntzan kaudimen aitortua duen erakunde espezializatuaren izaera lortzeko betekizunak arautzen dituen Foru Agindua prestatzeko prozedurari hasiera ematen diona. 2026ko Araugintza Planean sartua.



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	19/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena berrestekoa, Bizkaiko Foru Aldundiak, beste bidaia batzuk gehituta, Bizkaibus zerbitzuaren A3641 linean ibilbide berri bat zor dezan. 2025eko abenduaren 22ko ALHAO, 145. zenbakia.	Bukatuta	Aiaraldeko Kuadrillako herritarren konexioa eta mugikortasun jasangarria hobetzea, erreferentziazko osasun zentro publikoei dagokienez. Zehazki, Galdakao-Usansolo Ospitalearekin lotura hobe eta zuzenagoa izateko, Aiaraldeko kuadrillako herriekiko A3641 linean espedizio berriak sartu dira.



LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	Kontzejuen Foru Arauaren proiektua.	Izapidetzen hasita	Nahitaezko txosten guztiak egin dira, ekonomia eta araudi kontrolari eta legezketasunari buruzkoak izan ezik.
	Ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren proiektua, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duena.	Bukatuta	13/2025 Foru Araua, urriaren 22koa, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua aldatzeko. 2025eko azaroaren 3ko ALHAO, 125. zenbakia.
FORU DEKRETUA	Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez 2026-2027 aldirako laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta dagokion deialdia onartzen dituen Foru Dekretua.	Bukatuta	17/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 27koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta 2026-2027rako deialdia onesten duena. 2025eko maiatzaren 30eko ALHAO, 60. zenbakia.
	Auzolanak egiteko erremintak eta tresnak erosteko deialdia onesten duen Foru Dekretua.	Bukatuta	10/2025 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnak eta norbera babesteko ekipoak eskuratzea finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorre, bai eta haien 2025erako deialdiari ere. 2025eko apirilaren 9ko ALHAO, 41. zenbakia.
	Arabako Foru Aldundiaren etxebizitzien alokairurako abalen programako errentatzaileek eta errentariek bete beharreko baldintzak onesten dituen Foru Dekretua.	Bukatuta	13/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 13koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onspena ematea etxebizitzien alokatzeko Arabako Foru Aldundiaren berme programari. 2025eko maiatzaren 21eko ALHAO, 56. zenbakia.



LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA			
Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	2/2025 Foru Araua, urtarrilaren 15koa, Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua aldatzeko. 2025eko urtarrilaren 31ko ALHAO, 12. zenbakia.	Bukatuta	Kuadrilla interesdunak eskatu zuen aldaketa.
	5/2025 Foru Araua, ekainaren 11koa, Arriagako Kontzejua desegitea arautzen duena. 2025eko ekainaren 27ko ALHAO, 72. zenbakia.	Bukatuta	Desegitea Vitoria-Gasteizko Udalak eskatu zuen.
	12/2025 Foru Araua, urriaren 22koa, kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua aldatzeko. 2025eko azaroaren 3ko ALHAO, 125. zenbakia.	Bukatuta	Arabako Errioxako eta Aiaraldeko kuadrillen izen ofizialak aldatzea, bi toki erakundeek eskatuta.
FORU DEKRETUA	4/2025 Foru Dekretua, otsailaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea etxebizitzak erosteko Arabako Foru Aldundiaren abalen programan sartzeko baldintzak eta haien finantza baldintzak, baita 2025eko ekitaldirako deialdia ere. 2025eko otsailaren 17ko ALHAO, 19. zenbakia.	Bukatuta	10/2024 Foru Arauak, uztailaren 10ekoak, 2024ko indarreko aurrekontuko neurri osagarriei buruzkoak ezarritakoarekin bat etorriz onartu zen programa.
	28/2025 Foru Dekretua, uztailaren 8koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea alokairu sozialeko eta/edo babestuko etxebizitzak eskuratu eta birgaitzeko Araba(n) Bizi Bedi programaren dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorre. 2025eko uztailaren 16ko ALHAO, 80. zenbakia.	Bukatuta	2025. urteko aurrekontuaren zuzenketetan sartu zen.



LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA			
Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	24/2025 Foru Dekretua, ekainaren 10ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako kontzejuei biziberritze planetan laguntzeko programaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrei. 2025eko ekainaren 18ko ALHAO, 68. zenbakia.	Bukatuta	2025. urteko aurrekontuaren zuzenketetan sartu zen.
	Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa. Onespena ematea landako askotariko zerbitzuak ezarri, handitu eta hobetzea sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrei. 2025eko urtarrilaren 24ko ALHAO, 9. zenbakia.	Bukatuta	Prozedura 2024. urtean hasi zen. 10/2024 Foru Araua, aurrekontuaren neurri osagarriei buruzkoa onetsi ondoren.



NEKAZARITZA SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	Abeltzaintza Zerbitzuaren jarduketan tasak eguneratzeko foru arauaren proiektua.	Bukatuta	2025eko Aurrekontua gauzatzeko Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarria (Arabako Foru Ogasunaren tasen aldaketa orokorra).
FORU DEKRETUA	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 32/2023 Foru Dekretua, onesten dituen Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatiko laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horietarako 2025erako deialdia.	Bukatuta	95/2025 Erabakia, otsailaren 18koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromiso batzuk hartzeagatiko laguntza lerroaren 2025. urterako deialdia onesten duena. 2025eko otsailaren 28ko ALHAO, 24. zenbakia.
	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 31/2023 Foru Dekretua, onesten dituen Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak eta beste muga jakin batzuk dituzten zonetarako laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horietarako 2025erako deialdia.	Atzera eginda	2025eko laguntzen deialdia onetsi da, 31/2023 Dekretuan aldaketarik egin gabe. 126/2025 Erabakia, martxoaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak edo bestelako muga espezifikoak dituzten eremuetarako dirulaguntzen 2025eko deialdiari. 2025eko martxoaren 14ko ALHAO, 30. zenbakia.
	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Gobernu Kontseiluaren ekainaren 6ko 27/2023 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan fruta arbolak ezartzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horietarako 2025erako deialdia.	Atzera eginda	2025eko laguntzen deialdia onartu da, 27/2023 Dekretuan aldaketarik egin gabe. 76/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea nekazaritza ustiatagietan inbertsioak egiteko laguntzen 2025eko deialdiari. 2025eko otsailaren 14ko ALHAO, 18. zenbakia.

**NEKAZARITZA SAILA****Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak**

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Gobernu Kontseiluaren ekainaren 6ko 28/2023 Foru Dekretua, 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan nekazari gazteak ezartzera bideratutako laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza lerro horren 2025erako deialdia onesten dituen.	Atzera eginda	2025eko laguntzen deialdia onetsi da, 28/2023 Dekretuan aldaketarik egin gabe. 77/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea nekazari gazteak ezartzera bideratutako laguntzen 2025erako deialdiari. 2025eko otsailaren 14ko ALHAO, 18. zenbakia.
	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Gobernu Kontseiluaren 30/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa, onesten duena ur baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2025erako deialdia.	Bukatuta	9/2025 Foru Dekretua, martxoaren 25koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 13ko 30/2023 Foru Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez onetsi baitziren ur baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia onesten duena. 2025eko apirilaren 2ko ALHAO, 38. zenbakia.
	Abeltzaintzako aseguruak kontratazeko laguntzen oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Dekretua.	Bukatuta	35/2025 Foru Dekretua, urriaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planetan sartuta dauden abeltzaintzako aseguruak kontratazeko laguntzak eskuratzeko sistemaren oinarri arautzaileei eta 2025eko deialdiari onespena ematen diena. 2025eko urriaren 22ko ALHAO, 120. zenbakia.

**NEKAZARITZA SAILA****Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak**

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 30ekoa. Onspena ematea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiattegietan "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako hazitarako zaldiak eskuratzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileei.	Atzera eginda	Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiattegietan "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako hazitarako zaldiak eskuratzeko laguntza deialdiari eta kreditu erreserba onartu da. 293/2025 Foru Agindua, irailaren 18koa. Onspena ematen diena Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiattegietan "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako hazitarako zaldiak eskuratzeko 2025. urterako laguntza deialdiari eta kreditu erreserbari. 2025eko irailaren 22ko ALHAO, 107. zenbakia.
	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Foru Gobernu Kontseiluaren 34/2021 Foru dekretua, uztailaren 20koa. Onspena ematea Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, abereen osasunerako eta abereen ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileei.	Atzera eginda	2025eko laguntzen deialdia onartu da, 34/2021 Dekretuan aldaketarik egin gabe. 453/2025 Erabakia, uztailaren 22koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onspena ematea zenbait laguntza lerroren deialdiari Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, abereen osasunerako eta abereen ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzeko. 2025eko uztailaren 28ko ALHAO, 84. zenbakia.

**NEKAZARITZA SAILA****Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak**

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2022 Foru Dekretua, uztailaren 12koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiategietan abereak basa faunaren erasoetatik hobeto babesteko prebentzio neurriak ezartzeko laguntzen oinarri arautzaileei.	Atzera eginda	Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiategietan basa-faunaren erasoen aurrean azientaren babes hoberetarako prebentzio neurriak eta ehiza espezieek landa ingurunean 2025. urtean eragindako kalteak arintzeko neurriak ezartzeko laguntzen deialdia onetsi da. 166/2025 Foru Agindua, maiatzaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiategietan abereak basa faunaren erasoetatik hobeto babesteko eta ehiza espezieek 2025. urtean landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak ezartzeko laguntzen deialdiari. 2025eko ekainaren 6ko ALHAO, 63. zenbakia.
	Arabako Lurralde Historikoko azientaren osasun programa gauzatzeko baldintzak onesten dituen Foru Dekretua.	Izapidetzen hasita	Entzunaldi eta informazio publikoko faseari egindako alegazioak. 2026/17 Foru Agindua, urtarrilaren 23koa. Behien infekziozko errinotrakeitisa (IBR) prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren nahitaezkotasuna Arabako Lurralde Historikoan ezartzen duen foru dekretuaren prozedurari hasiera ematen diona.
	Foru Dekretua, onura publikoko mendietan egiten diren kirol edo aisialdi proba kolektibo baimenak arautzen dituena.	Aurretiazko jarduketak	Dekretuaren irismenari eta aplikazioari buruzko gogoeta tekniko jakin batzuen eragina aztertzeko prozesuan. 2026ko Araugintza Planean sartua.



NEKAZARITZA SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Ardogintzarako mahatserako nekazaritza aseguru konbinatuak kontratatzeke laguntzen oinarri arautzaile berriak eta 2025erako deialdia onesten dituen Foru Dekretua.	Bukatuta	31/2025 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Ardotarako mahatsetarako nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planetan sartutako nekazaritza aseguruak kontratatzeke laguntzen oinarri arautzaileei eta 2024-25 kanpainarako haien deialdiari onespina ematen duena. 2025eko abuztuaren 18ko ALHAO, 92. zenbakia.
	Arabako Lurralde Historikoko baso azaleretako landaketak arautu eta antolatzen dituen Foru Dekretua.	Izapidetzen hasi gabe	Prozedura 2026an hasia aurreikusten da.
	Arabako Lurralde Historikoko mahasti irautea sustatzeko laguntza espezifiko arautzen duen Foru Dekretua (mahasti zahar eta nabarmenak barne).	Bukatuta	11/2025 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretua aldatzeari, zeinaren bidez mahasti zaharrak mantentzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta haien 2025erako deialdia onetsi baitziren, onespina ematen diona. 2025eko apirilaren 16ko ALHAO, 44. zenbakia. 19/2025 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Arabako Lurralde Historikoko mahasti nabarmenen kontserbazioa eta mantentzea sustatzeko laguntza lerro espezifiko baten oinarri arautzaileei eta 2025eko deialdiari onespina ematen diona. 2025eko ekainaren 13ko ALHAO, 66. zenbakia.

**NEKAZARITZA SAILA****Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak**

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: 13/2015 Foru Dekretua, laborategiaren eta Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuko beste zerbitzu batzuen analisei aplikatu beharreko prezio publikoak arautzen dituenak.	Izapidetzen hasita	56/2025 Foru Dekretua, martxoaren 31koa, diputatu nagusiarena, mahastizaintza eta enologia zerbitzuko enologia laborategiko analisei aplikatu beharreko prezio publikoak arautzen dituen foru dekretuaren proiektua prestatzeko prozedurari hasiera ematen diona. Tramitazioa etenda geratu da prezio publikoen aldaketa justifikatzen duten txostenak egin arte. 2026ko Araugintza Planean sartua.
	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: 18/2023 Foru Dekretua. Foru Dekretu horren bidez, 45/2021 Foru Dekretua aldatzen da, zeinaren bidez onartzen baitira Araban luku politxarraren aurka borrokatzeko strategiaren garapena sustatzeko laguntzen oinarri arautzaileak.	Bukatuta	26/2025 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Mahastietan sexu nahastetako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (Lobesia Botrana) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntza arautzen duten oinarriei, baita 2025erako deialdiari ere onespina ematen diena. 2025eko uztailaren 9ko ALHAO, 77. zenbakia.
	Honako foru dekretua aldatzen duen foru dekretua: Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroa arautzen duen 5/2021 Foru Dekretua.	Izapidetzen hasi gabe	Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoa araudia onestea lehenetsi da.
	Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoa arautzen duen Foru Dekretua.	Bukatuta	16/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 20koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoa arautzeari onespina ematen diona. 2025eko ekainaren 4ko ALHAO, 62. zenbakia.



NEKAZARITZA SAILA

Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	38/2025 Foru Dekretua, azaroaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzako lurak sustatzeko eta haien garrantzia nabarmentzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta dirulaguntzen 3. lerroaren 2025eko deialdia. 2025eko azaroaren 14ko ALHAO, 130. zenbakia.	Bukatuta	Arabako Errioxako mahastizaintzako eta ardogintzako terroir sustatzeko eta haren ekoizpenen bikaintasuna garatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onestea, eta 2025eko ekitaldiko deialdia onestea.
	20/2025 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Santiagoko nekazaritza azokako nekazaritzako elikagaien saltokiak eta ostalaritzako saltokiak esleitzeko oinarri arautzaileei, eta 2025erako deialdiari. 2025eko ekainaren 11ko ALHAO, 65. zenbakia.	Bukatuta	Onespena ematea Santiagoko nekazaritza azokako nekazaritzako elikagaien saltokiak eta ostalaritzako saltokiak esleitzeko oinarri arautzaileei, eta 2025erako deialdiari.
FORU AGINDUA	7049/2025 Foru Agindua, abenduaren 17koa. Onespena ematea Arabako nekazaritza sektorean belaunaldi erreleborako estrategian parte hartzeko interesa adierazteko deialdi publikoari, bai eta Belaunaldi Erreleboko Erregistroa eta Belaunaldi Erreleborako Bitartekotzako Bulegoa sortzeari ere. 2026ko urtarrilaren 28ko ALHAO, 12. zenbakia.	Bukatuta	Onespena ematea Arabako nekazaritza sektorean belaunaldi erreleborako estrategian parte hartzeko interesa adierazteko deialdi publikoari, bai eta Belaunaldi Erreleboko Erregistroa eta Belaunaldi Erreleborako Bitartekotzako Bulegoa sortzeari ere.



KULTURA ETA KIROL SAILA

Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUA	Foru Arau Proiektua, Arabako Lurralde Historikoko jarduera arkeologiko eta paleontologikoak arautzen dituena.	Izapidetzen hasi gabe	Ez da izapidetzen hasi, sailean beste ekimen batzuei lehentasuna eman zaielako. 2026ko Araugintza Planean sartua.
FORU DEKRETUA	Foru dekretua, Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarriak arautzen dituena eta 2025eko deialdia onesten dituena.	Bukatuta	34/2025 Foru Dekretua, irailaren 30ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileei, bai eta 2025erako deialdiari ere. 2025eko urriaren 8ko ALHAO, 114. zenbakia.
	Foru dekretua, Arabako Foru Aldundiaren dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika arautzen duena.	Izapidetzen hasi gabe	Ez da izapidetzen hasi, sailean beste ekimen batzuei lehentasuna eman zaielako. 2026ko Araugintza Planean sartua.
	Foru dekretua, Arabako Kultura Batzordea sortzen eta haren antolamenduaren eta funtzionamenduaren arautegia onesten dituena.	Bukatuta	36/2025 Foru Dekretua, urriaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Kultura Batzordearen funtzionamenduaren arautegia. 2025eko urriaren 22ko ALHAO, 120. zenbakia.
FORU AGINDUA	Foru agindua, Arabako Lurralde Historikoko jarduera fisikoa eta eskola kiroleko programen araudia onesten duena.	Bukatuta	185/2025 Foru Agindua,uztailaren 14koa, Kultura eta kirol foru diputatuarena, Arabako Lurralde Historikoan eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak arautzen dituen araudiari buruzkoa. 2025eko uztailaren 28ko ALHAO, 84. zenbakia. Hutsen zuzenketa 2025eko abuztuaren 6ko ALHAO, 88. zenbakia.



KULTURA ETA KIROL SAILA			
Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUA	33/2025 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 26ko 37/2023 Foru Dekretuaren aldaketa, Arte Eszenikoen Tailerrarekin lotutako zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak onestekoa. 2025eko azaroaren 26ko ALHAO, 135. zenbakia.	Bukatuta	Kultura eta Kirol Sailaren 2025. urteko araugintza plana egin zenean, Arte Eszenikoen Tailerraren ikasturtearen hasieratik gertu, oraindik hobekuntza eremuak hauteman gabe zeuden. Gabeziak eta hobekuntza aukerak baieztatu ondoren, beharrezkoa izan zen ikasturte berria hasi baino lehen izapidetzea.